

JUAN DE LA CIERVA 2022 DOKTOREGO ONDOKO LAGUNTZEN DEIALDIA:

Dirulaguntzen ezaugarriak:

Diru-laguntzen xedea doktore titulua duten gazteak txertatzea bultzatzea da, Espainiako I+G zentroetan doktorego ondoko ikerketa-prestakuntza egin dezaten.

MCI-k 500 laguntzatarako deialdia egin du doktore gazteen lan kontratazioa suspertzeko, doktoregoaren ondoko lehenengo prestakuntza fasean berenganatutako gaitasunak finkatze aldera. 9 plaza gordetzen dira %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeke eta beste 9 autonomia-erkidegoetako nekazaritza eta elikagaigintzako ikerketa-zentro publikoetan, INIA (CSIC)-CCAA sistematan eta Ikerketa Zientifikoen Estatuko Goi Kontseilua (CSIC) Estatu Agentzian integratuak, Nekazaritza eta Elikagaien Ikerketa eta Teknologia Institutu Nazionalaren (INIA) bitartez

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuek bi urteko iraupena izango dute, eta epea zenbatzen hasiko da ikertzaileak I+G Zentroko lanpostura sartzen direnetik.

UPV/EHU-n hasiko diren onuradunek jasoko duten ordainsaria UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen negoziazio mahaiaren akordioan ezarritakoen arabera izango da, doktore-aurreko kontratua eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza sistemara sartzeko kontratua duten aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa, 2021eko abenduaren 16an Gobernu Kontseiluak berretsi zuena.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

Baldintzak deialdiko oinarrien 6. artikuluan kontsulta daitezke.

GARRANTZITSUA: Hautagaiek laguntza derrigor eskatu beharko dute doktorego aurreko prestakuntza jasotzeko erabilitako zentroa ez den **beste I+G zentro batean** hasteko. Helburu horri begira, bereizi egin behar dira doktore titulua ematen duen ikastegia (unibertsitatea) eta doktore titulua lortzeko gaitasun eta trebetasunez jabetzera bideratutako ikerketa jardueren multzoa garatu denekoa.

6.1.b) artikulua ezarritakoaren inguruan, aipatu beharrean gaude UPV/EHUk ez duela mugikortasuna justifikatzeko memoriarik egingo.

UPV/EHUko tutoreek bete beharreko baldintzak:

Tutoreek bermatuta eduki beharko dute funtzionario lotura edo lan kontratua UPV/EHUrekin eskaera aurkezten denetik eta laguntzak irauten duen 2 urteak amaitu arte.

Tutoreak, modalitate honetan, eskaera bakarrean ager daitezke tutore gisa. Baldintza hori bete ezean, bi eskaeretatik kanpo geldituko dira.

GARRANTZITSUA:

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **ez** du balioztatuko baldintza hori betetzen ez duen eskaerarik.

Eskaerak aurkezteko epea hautagaientzat:

2023ko urtarrilaren 24tik hasita 2023ko otsailaren 7ko 14:00ak arte.

GARRANTZITSUA:

Hautagaiak berek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean. UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak epe gehigarri bat izango du aurkeztutako eskaerak balioztatzeko, **2023ko otsailaren 14ra arte**, hain zuzen ere.

Hautagaiak aurkeztu beharreko eskaera:

Eskatzaileek urrats hauek eman beharko dituzte:

1. Izena eman behar da Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikerlariaren erregistroa" atalean:
<https://aplicaciones.ciencia.gob.es/rus/editarRegistroPrevioUsuario.mec>
2. Eskaera egiteko formularioa [aplikazio](#) honetan bete behar da.

UPV/EHUko izapidea:

UPV/EHU-ra adskribatu gura diren hautagaiak hurrengo dokumentazioa igorri beharko dute, **2022ko otsailaren 7ra arte (hori ere barne)**, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbide elektronikora:

- a. Eskaera egiteko formularioa
- b. [Hautagaiaren CVA](#)
- c. NAN-aren kopia
- d. Doktore tituluaren kopia
- e. Datu pertsonalen fitxa, Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean eskura dagoen erudian.
- f. [Tutorearen CVA](#)
- g. Ikertaldearen historial zientifiko eta tekniko (5 urtekoa).

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak **ez** du baliozkotuko epez kanpo jasotako dokumentazioa duen eskaerarik.

GARRANTZITSUA:

Elektronikoki bidali eta berehala, eskatzaileak, sinadura elektronikoko sistema aurreratu baten bidez edo eskuz idatziz, sinatuko ditu aplikazio telematikoki automatikoki sortutako dokumentuak eta UPV/EHUUn eskura jarriko ditu.

E-MAILLez (Sinadura elektronikoa): pre-postdoc.dgi@ehu.eus

EDO SINADURA ELEKTRONIKO SISTEMARIK EDUKI EZEAN:

Postaz (Eskuz idatzitako sinadurarekin):

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Ikerketaren arloko errektoreordetza (Deialdien Atala)

Errektoretza eraikina

Sarriena auzoa, z/g

48.940 Leioa (Bizkaia)

MCIUko kontaktua:

Eskatzaileek MCIUri egin ahalko dizkiote kontsulta administratiboak zein informatikoak formulario honen bidez:

https://ciencia.sede.gob.es/pagina/index/directorio/utilidad_contacte_con_nosotros

UPV/EHUko kontaktua:

Zerbitzuaren hobe beharrez, kontsultak posta elektronikoaren bidez bidaliko dira pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera, gaiaren eremuan "Juan de la Cierva 2022" adierazita.

Informazio gehiago:

Klikatu -> [Esteka](#)